



EGILE-ESKUBIDEEK

Sormen-lana babesten dute



Zer dira egile-eskubideak?

- Sormen-lana babestea.
- Legeak obra bat sortu duen pertsonari emandako eskubidea.
- Egile-eskubideek eskubidea ematen diote egileari bere lana nola erabili erabakitzeko.
- Egile-eskubideei esker, sormen-lanen egileek ordainsaria jaso dezakete beren lanagatik.



Zer esan nahi dute egile-eskubideek?

- Egileak eskubide eksklusiboak eta moralak jasotzen ditu.
- Egileak erabakitzen du nola erabil daitezkeen berak eginiko lana.
 - Adibidez:
 - Lana argitaratzerik dagoen.
 - Obraren aleak inprima daitezkeen.
 - Obra beste obra baten zati gisa txerta daitezkeen; adibidez, film edo iragarki baterako musika gisa.
 - Obra bat beste genero artistiko baterako egokitu daitezkeen; adibidez, film bat egitea liburu batean oinarriturik.
 - Obra aldatu ote daitezkeen; adibidez, irudi bat editatu edo liburu bat beste hizkuntza batera itzuli.
- Egile-eskubideek sormen-lanarekin bizimodua ateratzea ahalbidetzen dute.

Zer babesten dute egile-eskubideek?

- Sormen-lan baten emaitza.
 - Literatura-lan edo artelan bat.
 - Ez dio axola exekuzio-metodoak.
 - Obra izan daiteke, konparazio baterako, hondarrezko edo elurrezko eskultura bat, edo are argiztapen-artelan bat.
- Sormen-lanaren ekoizpenak **originaltasunaren atalasea** gainditu behar du.
- Originaltasunaren atalasea gainditutzat emateko, obrak egilearen berezko sorkuntza intelektuala izan behar du eta egilearen nortasuna islatu behar du, erabaki aske eta sortzaileen bidez.
 - Hau da, egilearen erabaki pertsonalak islatu behar ditu.
 - Ez dago baldintza kualitatiborik edo artistikorik babesa jasotzeko.


Zer EZ dute babesten egile-eskubideek?

- Egile-eskubideen bidez, egileak bere lana nola egin duen babesten da.
- Egile-eskubideek ez dituzte babesten obran bildutako ideiak, kontzeptuak edo metodoak.
- Erabil daitezke informazioa, ideiak eta metodoak; ezin dena da beste batek ideia edo metodo horiek garatzeko, azaltzeko edo kontatzeko baliaturiko modu berean kopiatu zehatz-mehatz.



Nola sortzen da babesesa?

- Babesa **automatikoki** sortzen da, obra egin bezain pronto.
 - Ez da eskatzen erregistratzea edo © sinboloa erabiltzea.
- Egile-eskubideak egilea bizirik den bitartean egoten dira indarrean, **bai eta beste 70 urtez ere, hiltzen denetik aurrera.**



Nork lortzen ditu egile-eskubideak?

- Egileak izaten ditu beti eginiko lanaren gaineko egile-eskubideak.
- Egilea obra sortu duen pertsona fisikoa da.
 - Adibidez: konpositore bat, letragile bat, idazle bat, zuzendari bat, margolari bat, ilustratzaile bat, argazkilari bat.
- Egile batek beste pertsona bati laga diezazkioke bere egile-eskubide guztiak edo batzuk.
 - Lagapen-hartzaileari eskubideen titular deitzen zaio.
 - Enpresa bat, ikastetxe bat edo beste edozein erakunde ere izan daiteke eskubideen titular.



Zer eskubide ditu egileak?

USTIAPEN-ESKUBIDEAK EDO ESKUBIDE ESKLUSIBOAK

- **Ale bat erreproduzitzea**
 - Adibidez, kopia digital bat inprimatzea, fotokopiatzea, eskaneatzea edo biltegitratzea.
- **Jendearen eskura ipintzea**
 - Adibidez, testu baten irakurketa dramatizatua, ikus-entzunezko lan baten transmisioa eta jendaurreko erakustaldia, edo obrak Interneten transmititzea.

ESKUBIDE MORALAK

- **Gurasotasun-eskubidea**
 - Obra erabiltzen denean, egilearen izena aipatu behar da.
- **Osotasunerako eskubidea**
 - Obra ezin da aldatu haren interes legitimoei edo izen onari kalte egiteko moduan.